

## A12

### Gaztelatika jentil onbre bat...

Poemak bi zati ditu: lehenengo bi ahapaldietan, hirugarren bati gertaturikoaz dihardu narratzailearen ahotsak; hirugarren eta laugarren ahapaldietan, berriz, estilo zuzenean hitz egiten dio Joan Lopez Zuazukori. Baina ez dira zati lokabeak: Gaztelako “jentil onbrea”ren kasuak irakatsi behar dio Joan Lopez Zuazukori maitaleak maitatuaren erantzun onik hartzen ez duenean komeni zaiola uztea.

<1180r>	Gaztelatika <sup>1</sup> jentil onbre bat orain etorri ei <sup>2</sup> jaku; etorritzker <sup>3</sup> donzeila batek amorez ei dau benzidu.	
	Donzeileorri on deretxo, <sup>4</sup> donzeileorrek ez hari; hau honela oi <sup>5</sup> dan azkero, <sup>6</sup> eskerrik asko Jaunari.	5
	—Joan Lopez jauna Zuatzuko, ene esan <sup>7</sup> bat egizu: bardin <sup>8</sup> on ez deretxun gero, <sup>9</sup> donzeileorri itxazu. <sup>10</sup>	10
	Zure adiskidea nax ta gehiago ez dot esango, zegaiti bakit <sup>11</sup> dakusunean nola zarean eongo.—	15

#### Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A12 – Gaztelatika jentil onbre bat... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

<sup>1</sup> *Gaztelatika*: ‘Gaztelatik’.

<sup>2</sup> *ei*: ‘omen’.

<sup>3</sup> *etorritzker*: ‘etorri denetik’.

<sup>4</sup> *Donzeileorri on deretxo*: ‘dontzeila hori maite du’.

<sup>5</sup> *oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>6</sup> *honela oi dan azkero*: ‘honela baita, honela denez’.

<sup>7</sup> *esan*: ‘agindu, aholku’.

<sup>8</sup> *bardin*: ‘dena den, seguru aski’ edo ‘berdin; berdin hark zuri, zuk hari bezala’; zalantza dugu bi adiera horietako zein ote duen hemen.

<sup>9</sup> *on ez deretxun gero*: ‘ez baitzaitu maite, ez zaituenez maite’.

<sup>10</sup> *itxazu*: ‘utz iezaiozu’.

<sup>11</sup> *bakit*: ‘badakit’.